

Eskoriatzako genero berdintasunerako I. plana (2026-2029)

[2025eko abendua]

Proiektu honen aholkularitza teknikoa
Emun Koop.E –k egin du

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala

Aurkibidea

Hitzaurrea.....	3
Lege markoa	4
Metodologia.....	5
Prozesuaren deskribapena	5
Eskoriatzako genero berdintasun egoeraren diagnostikoan identifikatutako erronkak	8
Printzipioak eta bermeak	11
Esku hartze eremu, helburu eta ekintzen laburpena.....	14
Neurriak, epeak eta adierazleak	16
Bitartekoak eta baliabideak	25
Jarraipena eta ebaluazioa	26

Hitzaurrea

Eskoriatzako Udalak beste urrats bat eman nahi du berdintasunaren aldeko bidean, eta horren emaitza da esku artean dugun I. Berdintasun Plana. Aurreko urtean egindako Berdintasun Diagnostikoak gure herriko errealitatea eta arlo honetan ditugun erronkak sakonetik ezagutu eta batu zituen. Dokumentu honek, berriz, ikuspegi horretatik abiatuta, datozen urteetarako norabidea eta konpromisoak zehazten ditu.

Bide honetan, udalean urrats esanguratsuak egiten hasiak bagara ere, urteetako ibilbide kolektibo baten emaitza da, eta bereziki herriko emakumeen eta talde feministaren lan nekaezinari zor diogu gaur hemen egotea. Haiek dira egunerokoan bidea egiten jarraitzen dutenak, eta haien konpromisoek gogorarazten digute oraindik ere luzea dela eraikitzeko dugun bidea.

Hori horrela, plan hau herri osoarentzat da, guztion onerako. Berdintasuna ez da emakumeen kontua soilik, herritar guztioi dagokigun eginbehar eta ardura partekatua da. Bestalde, emakume guztiengana iritsi nahi badugu ere, bakoitza bere errealitate eta beharretatik abiatuta, ezinbestekoa da pertsona guztion inplikazioa bermatzea.

Ilido berean, prozesuak berak ere izan du bere indarra, eta herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izan denez, eskerrak eman nahi dizkiegu hausnartu, partekatu eta proposamenak egitera hurbildu zareten guztioi.

Lehenengo plana izanik, gauzak lurreratzen hasteko eta benetan egingarriak diren neurriak jasotzeko ahalegina egin dugu. Hala ere, badakigu errealitatea bizia eta aldakorra dela. Horregatik, egunerokoan agertzen diren erronka berriei ere ahalik eta modurik eraginkorrenean erantzuten saiatuko gara.

Hasiera besterik ez da hau. Ez dugu etenik nahi berdintasunaren aldeko bidean, eta denborak aurrera egin ahala gure herrian sendotu eta sakonduz joatea da gure konpromisoa.

IRATI IGLESIAS POZO

ESKORIATZAKO BERDINTASUN ZINEGOTZIA

Lege markoa

Nazioartetik toki administrazioetara arau eremu zabalak babesten du genero berdintasunerako eskubidea, zein hori erdiesteko politika publikoen beharra. Bide horretan, udalek berdintasun politiken garapenerako eginkizuna ere arautua ikus dezakegu xedapen horietako hainbatetan. Hori horrela, testu honen zein ondoren sortuko den planaren arau markoa osatuko dute:

Nazioartean

- Nazio Batuen Gutuna (1945).
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948).
- Emakumeari buruzko Mundu Konferentziak. Munduko IV. Konferentzia: Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma. +5, +10, +15, +20, +25, +30 egindako jarraipenak

Espainiar Estatuan

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako.
- 5/1015 Legegintzako Errege Dekretua, enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren
- Legaren testu betegina onartzen duena
- 10/2022 Lege Organikoak, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa
- 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun benetako eta eraginkorrerakoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa

EAEen

- EAEko 1/2023 Legegintzako dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu betegina onartzen duena.
- 11/2022 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena
- 4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Gipuzkoako lurralde historikoan

- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, Gipuzkako Batzar Nagusiek onartua.

Horrez gain, eremu programatikoan, bereziki aipatu behar dugu **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia** non EAEko botere publikoen jarduna gidatuko duten esku hartzeko ildoak eta zuzentarauak jasotzen diren. Esku hartzeko ildo horiek izango dira plan honen erreferentziazko esparru.

Metodologia

Eskoriatzako Udalean, berdintasun diagnostikoa eta plana egiteko hausnarketa bultzatu eta gogoeta eta erabakiak partekatu dira arlo eta eremu desberdinetako langile, ordezkari instituzional eta eragileen artean, ondorengo arloetan arreta berezia jarrita:



Parte hartzean




Sentsibilizazio eta hausnarketan




Fazilitazioan

PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Berdintasun planen prozesuek fase nagusi hauek dituzte:



Txosten honekin, goiko irudian azaldutako prozesuaren bigarren urratsa eman dugu: planaren diseinua. Eskoriatzan I. Berdintasun Plana 2025eko maiatzetik azarora bitarteko epean egin da eta ondorengo irudian jasotakoak izan dira ibilbide horretan emandako urratsak:



Irudian aurkezten dugun bezala, planaren diseinuaren prozesuak 4 fase nagusi izan ditu:

1. Fasea: aurrelanak edo lanen planifikazioa:

Diagnosi prozesuko esperientzian oinarriturik fase hau zuzenean Talde Eragilearekin abiatu zen, horretarako bilera bat eginda. Landutako aurrelanak hauek izan dira:

- Urratsak eta kronograma adostu:** metodologia, metodoak, epeak eta tresnak zehaztu ziren, proiektuaren beharretara eta ezaugarrietara ahalik eta hobekien moldatzeko.
- Ekintzak eta eragileak zehaztu:** prozesuko ekintzak, eragileak eta funtzioak zehaztu ziren. Fase bakoitzeko egitekoak eta arduradunak.
- Komunikazio plana diseinatu:** diseinuko lan zehatzekin hasi aurretik, komunikazio egokia bermatzeko aldez aurreko planifikazioa egin zen. Komunikazio planean diseinuko une bakoitzean komunikatu beharreko mezuak eta horretarako kanalak adostu ziren.

2. Fasea: Planaren diseinua:

Fase honetan, planaren zirriborrora iristeko arlokako partaidetza saioak egin ziren.

- Arlokako lanketa:** Guztira 5 saio egin ziren eta landuko zen gaiaren arabera erabaki zen gonbidapena nori egin. Betiere helburua parte hartzaileak helburu eta ekintzen diseinuan eta ondoren horien inplementazioan inplikatzea zelarrik. Saio guztien egitura antzerakoa izan zen: hasieran, zegokion ardatzaren kokapena egin zen, ondoren, diagnostikoan identifikatutako erronkak birgogoratu ziren, eta bukatzeko, arlo horri dagokionez plan honekin zer lortu behar den irudikatu genuen, ekarpenak helburu eta ekintza formatura eramanez.
 - Barne dimentsioa:** Saio bakarra egin zen eta gobernu onaren ardatzaren lanketara bideratu izan zen. Saio horretan berdintasuneko

arduradun politiko eta teknikoak eta pertsonen arloko arduradun politikoek parte hartu zuten.

- ii. Kanpo dimentsioa: 4 saio egin ziren kanpo dimentsioaren baitan sartzen diren gaiak lantzeko. Gaien aukeraketa diagnostikoan ateratako erroka nagusietan oinarrituta egin zen. Hala antolatu ziren saioak:
 1. Kultura: Kultura teknikaria, kulturako eta liburutegiko teknikaria, kulturako ordezkari politikoa, euskara teknikaria, euskarako ordezkari politikoa eta berdintasun teknikaria.
 2. Hezkuntza: Hezkuntza teknikaria eta hezkuntzako ordezkari politikoa.
 3. Kirola: Kiroleko arduradun politikoa, polikiroldegiko teknikaria, berdintasun teknikaria eta berdintasuneko ordezkari politikoa.
 4. Feminismoa, ahalduntzea eta indarkeria: Gizartekintzako ordezkari politikoa, prebentzio teknikaria, berdintasun teknikaria eta berdintasuneko ordezkari politikoa.
- b. Txostenaren zirriborroa: Jasotako ekarpenekin behin-behineko txostena osatu zen eta talde eragilearen bigarren bileran landu zen.

3. Fasea: Kontrasteak:

Planaren kontrasterako bi metodo martxan jarri ziren: aurrez aurreko saioak eta online egiteko aukera:

- a. Planaren kontraste saioak:
 - i. Udaleko ordezkari politikoak: Saio honetan gobernu onaren ardatzean indar gehiago jarri bazen ere, plan osoaren kontrastea gauzatu zen ordezkari politikoekin.
 - ii. Udal langileak: Berdintasun teknikariak prozesuan parte hartu zuten beste arloetako teknikariekin egin zuen kontrastea.
 - iii. Eskoriatzako Mugimendu Feminista: Saio honetan planaren diseinuan jarraitutako prozesua, planak jaso dituen helburuak eta, batez ere, ahalduntze feministako ekintzak partekatu ziren eta horiekiko ekarpenak jaso ziren.
- b. Online kontrastea:
 - i. Herritarrak eta herri eragileak: Planaren zirriborroa Eskoriatzako udaleko web orrialdean argitaratu da inprimaki batekin batera, bertan, herritarrek ekarpenak egin zitzaizten. 2 erantzun jaso ziren.
 - ii. Emakunde: Behin betiko txostena Emakunderi bidali zaio kontrastea egin dezan.

4. Fasea: Itxiera eta balorazioa:

- a. Emaizta txostena: kontrasteetako ekarpenak barnebilduta azken txostena osatu zen eta Talde Eragileko kideekin partekatu.
- b. Prozesuaren balorazioa: Talde Eragilearen azkeneko bileran prozesu baten itxiera izanik, momentua baliatu zen egindako lanaren, metodologiaren, giroaren eta emaitzaren balorazioa egiteko.
- c. Osoko bilkuran plana onartzea: Emaizta txostena udal ordezkariak osoko bilkuran onartu beharko dute 2026an planaren inplementazioarekin hasi ahal izateko.

Eskoriatzako genero berdintasun egoeraren diagnostikoan identifikatutako erronkak

Eskoriatzako planaren abiapuntua 2024an burutu zen herriko genero berdintasun egoeraren diagnostikoa izan da, bertan identifikatutako erronkak eta egitekoek gidatu dutelarik plangintzaren norabidea.

Datozen lerroetan diagnostiko prozesuan zehar identifikatu ziren erronka nagusiak jasotzen dira. Hala ere, errealitatea etengabeko mugimenduan dago eta, ondorioz, ondoren jasotzen dena ez da zerrenda mugatu bat, bidean sortu edo identifikatu diren hutsune, eginbehar eta gabeziek ere tokia izan dutelarik jarraian topatuko den planean. Bestalde, planak ez die identifikatutako erronka guztiei erantzuten, diagnostikoa irekian egin bazen ere, planaren diseinuan lehenetsiak eta abiapuntuko helburu eta ekintzak definitzeari arreta jarri zaiolarik.

GOBERNU ONA

- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Ohiko rol tradizionalak gainditzen dituzten udal langileei ikusgarritasuna ematea, eredugarritasuna eta erreferentzialtasuna lantze aldera.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Garbiketa zerbitzua eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren lan baldintzen jarraipena egin eta etorkizunean udaletik zuzenean kontratatzeko aukera aztertu.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Berdintasuna zeharka lantzeko udal langile zein politikarien ezagutza bermatzea:
 - o [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Burutzen diren hirigintzarekin lotutako plangintzetan genero ikuspegia txertatzea. Horretarako lan horietan eskuhartzen duten pertsonen sentsibiltatea eta formazioa landu.
 - o [Gizarte zerbitzuak eta osasuna] Ematen den arreta balioan jarri eta lana genero ikuspegia kontuan izanez burutzeko baliabidez hornitzea langileak.
- [Udal komunikazioa] Indarrean dauden euskarrietan komunikazio ez-sexista erabiltzen dela bermatzea.
- [Udal komunikazioa] Politikari zein teknikariak hizkuntzaren erabilera ez-sexistan eta komunikazio inklusiboan trebatzea.
- [Genero berdintasuna] Udaletik berdintasun politikak garatzeko eta udal langileek zeharlerrotasunez berdintasuna beren lanean integratzeko formazio plana diseinatu eta burutu.
- [Genero berdintasuna] Udalean genero Berdintasuna lantzeko egitura bermatzea, etorkizunean diseinatzen diren plan eta ekintzak kudeatuko dituen.
- [Genero berdintasuna] Emakumeen ahalduntzea sustatzea eta askotariko emakumeak sartzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.
- [Genero berdintasuna] Herriko eragile eta norbanako feministen ekarpenak jaso eta elkarlana bideratzeko kanal formalak sortzea.
- [Kirola] Kirolera zuzendutako politika publikoen eta dirulaguntzen azterketa egitea eta behar izanez gero genero berdintasuneko klausulak txertatzea.

AHALDUNTZE FEMINISTA

- [Kultura] Kulturgintzan ohiko rol tradizionalak gainditzea.
- [Kirola] Herriko kirolean dagoen desoreka murriztea, emakumezkoen parte hartzea sustatuz, eta horretarako kirol esparrua beraientzat espazio segurua izan dadin landuz.
- [Kirola] Herriko emakume kirolarien eta herrian bertan kirola egiten duten emakumeak bistaratzea.
- [Kirola] Herriko kirol taldeetako erabaki guneetan emakumeen parte hartzea sustatzea.
- [Kirola] Kirol taldeen artean gaiaren inguruko sentsibilizazioa eta kontzientzia lantzea eta egoeran esku hartzea.
- [Zahartzaroa] Emakume nagusien ahalduntzea sustatzera bideratutako formazio eta sentsibilizazioa lantzea, beraiek ere gizarte aldaketan subjektu aktibo izan daitezen.
- [Zahartzaroa] Emakume nagusien saretzerako dinamikak bultzatu eta babestu.
- [Genero berdintasuna] Gai honen inguruan gazteen iritziak eta beharrak jasotzeko tresna aproposak aztertu.
- [Genero berdintasuna] Aretxabaletan sortzen ari den Emakumeen Etxearekin harremana eta aliantzak egiteko aukera aztertu.
- [Genero berdintasuna] Diagnostiko honek jaso ez dituen, edo azaletik jaso dituen, emakumeen errealitateetan sakontzeko bideak martxan jarri: emakume migratuak, adineko emakumeak eta landa eremuko emakumeak batez ere.
- [Gazteria eta hezkuntza] Gazteen artean ematen diren rol tradizionalak apurtzeko lanketa posibleak aztertu.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Zapalkuntza anizkoitzek emakume migratuen bizitzetan nola eragiten duten kontuan hartuta, emakume horien ahalduntzea sustatzea.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratuen saretzea sustatzeko baliabideak sustatu.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Askotariko emakumeen saretzea sustatzeko baliabideak sustatu.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Emakumeen kaleetako presentzia sinbolikoa lantzea.

GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA

- [Sozioekonomia] Enpleguaren alorrean ematen den segregazio horizontala gainditu eta enpleguan argazki orekatuagoa lortzera bidean urratsak ematen jarraitzea.
- [Zaintza lanak] Zaintza eta etxeko lanetan gizonetzkoen inplikazioa sustatzea.
- [Zaintza lanak] Kontratazio pribatu bidez asetzen diren zaintza beharretan oinarritzko baldintzak bete daitezen, kontzientziarioa lantzea, horretarako materiala informatiboa sortu eta zabalduz.
- [Zaintza lanak] Zaintza modu integral batean eta gaian inplikatuak dauden eragile eta herritarrekin batera lantzeko bideak irudikatu.
- [Gazteria eta hezkuntza] Hezkuntza eragile eta komunitatearekin batera genero berdintasunean etengabeko formaziorako bideak definitzea, genero berdintasuna modu isolatuan eta arazo zehatzei erantzunez lantzen den gaia izan ez dadin.
- [Gazteria eta hezkuntza] Dagoeneko martxan dauden eta emaitza positiboak dituzten dinamikak mantendu eta indartzea.
- [Gazteria eta hezkuntza] Haurrengan eragiteko guraso eta gainerako herritarren erreferentzialtasuna lantzea.
- [Gazteria eta hezkuntza] Hezkuntza eragile, komunitatearen eta udalaren arteko koordinazio/lanketa mahaia sortzea.
- [Gazteria eta hezkuntza] Herriko hezkuntza eragileek beren jarduna burutu eta lanketak egin ahal izateko espazio aproposak dituztela bermatzea garrantzitsua litzateke.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratuek egiten duten lana eta horren garrantzia balioan jarri eta hori duintzeko moduetan sakontzea.
- [Maskulinitateak] Herriko gizonekin maskulinitateen lanketa egiteko bideak aztertzea.

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

- [Jaiak] Jai eremuak zapalkuntzarik gabeko espazio seguruak izan daitezen sentsibilizazio eta prebentzio neurriak lantzen jarraitzea.
- [Jaiak] Burutzen diren ekintzetan eta jai egitarauan genero berdintasuna bermatzea.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Herriko eremu kaleak seguruagoak egitea; horretarako, gune ilunak identifikatu eta horiek eraldatzeko neurriak hartuz.
- [Genero berdintasuna] Sentsibilizazioan, salaketan zein esku-hartzean lanean jarraitzea eta indarkeria jasaten duten emakumeei tratu egokia bermatzea.
- [Genero berdintasuna] Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea eta herritar guztiek indarkeria matxistari aurre egiteko dauden baliabideen berri izan dezaten bermatzea.

Printzipioak eta bermeak

PLANAREN PRINTZIPIO GIDARIAK

Administrazio publikoaren jardunean koherentzia bilatu asmoz, Eskoriatzako berdintasun planak EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen eta EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren printzipio orokorrak hartu ditu oinarri planaren printzipio gidariak definitzerakoan. Hori horrela, aipatutako testuetatik abiatuta eta Eskoriatzako errealitate eta beharretara ekarrita, ondorengoak adostu dira planaren oinarrizko printzipio gisa:

Tratu berdintasuna: Pertsonen genero diskriminazio oro debekatzea, bai zuzeneko, bai zeharkakoa, horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere. Eskoriatzako Udalak diskriminazio anizkoitzari aurre egingo dio, eta emakumeen edo emakume-taldearen oinarrizko eskubideak benetan erabiliko direla bermatuko du, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk tartean daudenean, besteak beste arraza, kolorea, jatorri etniko edo soziala, hizkuntza, erlijioa, kultura, iritzi politikoak edo bestelakoak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, familiako figurazioa, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, sexu- edo genero identitatea, genero adierazpena, landatarra, migratzailea, errefuxiatua, seropositiboa, guraso bakarra izatea, edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

Aukera berdintasuna: Herritar oroaren eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, laboralak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak berdintasun baldintzetan baliatzen dituztela bermatzea, baita beste oinarrizko eskubide batzuk ere, besteak beste, boterea eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak kontrolatu eta haietara sarbidea izatekoa.

Indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea: Indarkeria matxista modu eta adierazpen guztietan prebenitu, artatu, konpondu eta desagerrarazteko helburua zeharka txertatzea Eskoriatzako Udalaren politiketan eta ekintzetan.

Genero ikuspegia txertatzea: Genero ikuspegia politika eta ekintza guztietan txertatzea, genero desberdinkeriak agerian uzteko eta ezabatzeko aukera ematen duen lanerako eta analisirako metodologia gisa.

Ekintza positiboa: Eskoriatzako Udaletik generoen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lor dadin sustatzea, bizitzako eremu guztietan sexuagatiko egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko neurri espezifikoak eta aldi baterakoak hartuz.

Generoaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea: Genero desberdinkerien oinarri diren rol sozialak eta genero estereotipoak ezabatzea sustatzea. Rol eta estereotipo horien arabera, etxeko eremuaren erantzukizuna emakumeei dagokiela naturalizatzen da, eta eremu publikoaren erantzukizuna, berriz, gizonari esleitzen zaie, balorazio eta aintzatespen ekonomiko eta sozial desberdinarekin.

Ikuspegi interseksionala txertatzea: Kontuan hartzea, zeharka, sexu-genero sistemak nola eragiten duen tratu berdintasunaren printzipio gidarian aipatzen diren gainerako faktoreekin. Erlazio horrek identitate gainjarriak eta interseksionatuak sortzen ditu, baita boterearen eta zapalkuntzaren egoerak eta ardatzak ere.

Sexu- edo genero identitatearen, sexu-orientazioaren, gorputz-autonomiaren eta autodeterminazioaren garapen askea: Sexu- edo genero-identitatearekin eta sexu orientazioarekin lotutako diskriminazioak bizitzako eremu guztietan ezabatzea. Gorputz-autonomia eta pertsona guztien autodeterminazioa bermatzeko politika publikoak garatzea, batez ere emakumeena, eta, bereziki, sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzea.

Ordezkapen orekatua: Erabakiak hartzeko eremu guztietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua. Ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatzea udal organo eta eremu guztietan.

Ahalduntze feminista: Ahalduntzea prozesu bat da, eta prozesu horren bidez, emakumeek eta sexu-genero disidenteek euren izateagatik aurre egin behar dieten desberdintasun- eta diskriminazio egoera estrukturalaren kontzientzia indibiduala eta kolektiboa hartzen dute, eta beren bizitzaren gaineko eskumena, boterea eta kontrola eskuratzen dute.

Gizonen inplikazioa: Gizonen kontzientziazioa, erantzukizuna, parte-hartzea eta inplikazioa berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka. Berdinzaleak ez diren maskulinitateak zalantzan jartzea eta erauzteak.

Parte-hartzea: Talde feministen eta askotariko emakumeen, gizarte-eragileen eta, oro har, herritarren parte-hartzea eta elkarrizketa bultzatzea, politika publikoen garapenean. Parte hartzeko guneak eta bideak egokitzea eta sortzea eskatzen du, irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea: Hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskararen erabilera sustatzea berdintasunaren esparruan (prestakuntza, parte-hartzea, sentsibilizazioa, langileei eta profesionaleri zuzendutako jarduerak, etab.)

PLANA GARATZEKO BERMEAK

Berme gisa ulertuko ditugu planaren garapena ziurtatzeko ezinbestetzat jotzen diren baldintzak edo bermeak:

Benetako konpromiso politikoa. Udal gisa barne mailan berdintasun politikak eta genero zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu, horretarako beharrezko bitartekoak bideratu eta koordinazio-egiturak onartuz. Baita, gardentasunaren eta herritarrei kontu-ematearen aldeko politikak eginez.

Aurrekontu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak eskaintzea. Berdintasun plana garatzeko beharrezko aurrekontua bermatzea, bai eta beharrezko baliabide tekniko eta estrukturalak ere.

Erantzukidetasuna, koordinazioa eta elkarlana. Honek bi eremutako lanketa inplikatzeko du: Berdintasuna sustatzeko udal mailan sail guztiek erantzukidetasunez lan egitea eta herri mailan, politiken garapenean, herritarren eta mugimendu feministen parte-hartzea eta solasaldia, bai eta herri eragile sozial eta ekonomikoena. Horietarako, beharrezko egiturak eta elkarlana bultzatuz.

Errealista eta egingarria. Asmo handikoak izateari utzi gabe, lan molde egingarri eta errealistak aurreikustea bilatuko da.

Esku hartze eremu, helburu eta ekintzen laburpena

Plana EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren esku hartze eremuetan oinarrituta dago:

- **Barne dimentsioa:** Berdintasun politika publikoak garatzeko baliabideak eta bermeak ziurtatzea eta bere jardunbidean genero berdintasun printzipioa aintzat hartzen duen eta zeharkako egiten duen udal egitura erdiestea da esku hartzeko ildo honen xedea. Horretarako, berdintasuneko berariazko politikak zein mainstreaming estrategia artikulatzeko konpromiso politiko garbia hartu eta horri erantzuteko oinarrizko egitura eta baliabideak esleitzea ezinbestekoa izango da (ekonomikoak, pertsonalak, trebakuntzari lotuak...). Bide horretan, barne lana ongi koordinatzea, eta beste erakunde eta eragileekiko elkarlan bideak urratzea emankorra izango da. Aipatu guztiak lantzeko helburua duen esku hartze eremu honek **Gobernu ona** izena hartzen du.
- **Kanpo dimentsioa:** aipatutako barne antolaketa horren helburu nagusia da udalak Eskoriatzako herriari begira egiten dituen politiketan genero ikuspegiz eta berdintasuna sustatuz lan egitea gizarte berdinzale eta justuagoa lortzeko. Helburu horri bultzada emateko, planak hiru esku hartze eremu landuko ditu:
 - o **Ahalduntze feminista:** Ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan genero berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialerako. Horregatik, ezinbestekoa da udalak ere ahalduntze hori sustatu eta bermatuko dituen bide orri bat diseinatzea. Horren bidez, alde batetik, Eskoriatzako emakumeen ahalduntze indibidual, kolektibo, sozial eta politikorako prozesuak sustatu eta babestea, eta beste aldetik, prozesu horiek iraunkor egiteko urrats sendoak ematea.
 - o **Gizarte-antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria:** Bizitza elkarrekin nola antolatu hausnartzea eta bidea urratzen hastea da beste eredu sozioekonomiko baterantz aldaketa egiteko lehenengo urratsa. Mota honetako helburu eta ekintzak dira esku hartze eremu honek barnebilduko dituenak.
 - o **Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak:** Indarkeria matxista oinarrizko giza eskubideen urraketa larri gisa ulertu behar dugu, eta horregatik, indarkeria horren aurrean erakundeek prebentzio eta esku hartzean ardurua eta funtzio propioak dituzte. Errealitate honekin lan egitean erakunde zein administrazio guztiek ikuspegi feminista batekin lan egiten behar dute, indarkeria matxistaren konplexutasuna eta askotariko alderdiak kontuan hartuz, eta baita berau jasaten dutenek izan ditzaketen diskriminazio ugariak ikusiaz, ahalduntzea helburu komun gisa hartuta. Bestalde, herritar guztiengan eragitea ere garrantzitsua da, indarkeriaren prebentzioan sakontzeko, berau identifikatzeko gaitasuna areagotzeko eta herriak indarkeriaren gaitzespen posizio argi bat izateaz gain, indarkeriarik gabeko herri izatera bidea egiteko.

2026-2029 aldirako plan estrategiko honek, orotara, 16 helburu eta 57 ekintza landuko ditu genero berdintasuna helburu.

ESKU HARTZE EREMUA	HELBURUAK	EKINTZA KOPURUA
1. GOBERNU ONA	1.1. Berdintasun politikak garatzeko udal barneko bermeak, egiturak eta tresnak artikulatu	6
	1.2. Udal langile eta ordezkari politikoak berdintasun politikak garatzeko gaitu modu progresibo eta iraunkorren	5
	1.3. Berdintasuna zeharlerrotasunez landu udaleko arlo guztietan	4
	1.4. Udaletik berdintasunaren alde egiten den lana herrian ezagutzera eman	4
	1.5. Udal langileen arteko berdintasuna bermatu	3
	1.6. Berdintasun politikak garatzeko lurralde eta erkidego mailako guneetan parte hartze aktiboa izan	2
2. AHALDUNTZE FEMINISTA	2.1. Emakumeak* feminismora gerturatu	4
	2.2. Askotariko emakumeen* eta LGBTI+ kolektiboko kideen sareak sustatu eta elikatu	4
3. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZ KOA ETA JASANGARRIA	3.1. Hezkuntza komunitate feminista bultzatzea	4
	3.2. Balio feministekin lerratutako kirol ereduak sustatu	3
	3.3. Eskoriatzan kulturgintza feminista sustatu	4
	3.4. Zaintza sistema justuago baterako bidea abiatu	4
	3.5. Balio feministekin lerratutako maskulinitate ereduak sustatu	2
4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	4.1. Indarkeria matxistaren prebentzioa	4
	4.2. Indarkeria matxista jasan duten emakumeei arreta integrala bermatzea	2
	4.3. Indarkeria matxistaren eraginez sortutako minaren erreparazioa bidelagundu eta bultzatu	2
		57 EKINTZA

Hurrengo orrietan Plan Estrategikoaren ekintzak, urtekako garapena eta horien ardura nork duen jasotzen da.

Neurriak, epeak eta adierazleak

1. GOBERNU ONA	URTEA				Arduraduna(k)	Adierazleak
	2026	2027	2028	2029		
1.1. HELBURUA: Berdintasun politikak garatzeko udal barneko bermeak, egiturak eta tresnak artikulatu						
Ekintzak:						
1.1.1. Berdintasunerako konpromiso politikoa adierazi					Udal Gobernua	<ul style="list-style-type: none"> – Planaren udal eta herri mailako aurkezpena egin da politikarien lidergoarekin. – Planaren jarraipen bileretan eta ebaluazioan udal ordezkariak parte aktibo dira. – Urtero plana garatzeko beharrezko bermeak ziurtatu dira (baliabide pertsonalak, ekonomikoak eta konpromiso politikoa).
1.1.2. Berdintasun Zerbitzua sortu: langile, arduradun politiko eta aurrekontu propioarekin					Udal Gobernua	<ul style="list-style-type: none"> – Berdintasun Zerbitzua dago langile, arduradun politiko eta aurrekontu propioarekin.
1.1.3. Urtero genero berdintasunera esleitzen den diru kopurua zein den aztertu eta aurrekontua emendatzen joan %1 edo handiagoa izatera iritsi arte					Udal Gobernua	<ul style="list-style-type: none"> – Aurrekontu orokorrarekiko zer ehuneko bideratzen den kalkulatu eta jarraipen fitxan erregistratu da urtero. – Berdintasunera esleitzen den aurrekontuaren ehunekoa urtero igo da.
1.1.4. Urtero urteko gestio plana osatu eta horri jarraipena egin					Berdintasun Zerbitzua Talde Eragilea	<ul style="list-style-type: none"> – Berdintasun Zerbitzuko 11 bilera egin dira, gutxienez. – Talde Eragilearen 2 bilera egin dira, gutxienez. – Urteko gestio plana osatu da berariazko jarraipenerako tresna erabilita.
1.1.5. Planaren urte bukaerako eta plangintzaldi erdiko zein bukaerako balorazioak egin eta horri lotutako neurri zuzentzaileak hartu					Berdintasun Zerbitzua Talde Eragilea	<ul style="list-style-type: none"> – Urtero urteko gestio planaren memoria txostena eta balorazioa egin da. – 2027 bukaeran legegintzaldi erdiko balorazioa egin da eta planean esanguratsuak diren aldaketak egin behar diren aztertu da. – Plangintzaldiaren bukaeran planaren balorazioa egin da.
1.1.6. Mugimendu feministarekin eta LGBTI+ mugimenduarekin (balego) harreman zuzen eta jarraitako modua definitu eta martxan jarri					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Udalaren eta mugimendu feministaren artean hartu eman zuzena dago. – Harremanaren helburua, modua eta rolak definitu dira.

1.2. HELBURUA: Udal langile eta ordezkari politikoak berdintasun politikak garatzeko gaitu modu progresibo eta iraunkorrean						
Ekintzak:						
1.2.1. Emakundek, IVAPek, Berdinbideanek, UEUK, UIK-k, Virginia Wolf Basqueskola.... eskainitako ikastaroetatik plangintzaldian zehar, gutxienez, formazio bat gauzatu langile eta politikari guztiek, gaiaren eta profilararen arabera					Berdintasun teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Urtero formazio eskaintzak aztertu eta langileei eta politikariei proposatu zaizkie. ↪ Erregistroan egindako formazioak eta parte hartzaileak jaso dira. ↪ Plangintzaldi bukaeran udal langile eta ordezkari politiko guztien %75ak mota honetako formazio bat jaso ditu.
1.2.2. Urtero udalean bertan genero berdintasunaren inguruko 2 orduko formazio bat antolatu udal langile eta ordezkari politiko guztientzat					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Beharren arabera gai aukeraketa egin da eta urtero bi orduko formazioa egin da. ↪ Erregistroan egindako formazioak eta parte hartzaileak jaso dira. ↪ Urtero udal langile eta ordezkari politiko guztien %75ak formazioa jaso du.
1.2.3. Berdintasun teknikariak lanpostuaren funtzioak egoki garatzeko beharrezko formazioa bermatu					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Garapen beharrak identifikatu dira. ↪ Beharrei erantzuteko modua eta baldintzak adostu dira. ↪ Dagokion formazioa garatu da.
1.2.4. Legegintzaldi bakoitzaren lehen urtean zehar lidergo feministen eta berdintasun planaren helburu eta erronken inguruko formazioa jaso udal ordezkari guztiek					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Legegintzaldi bakoitzaren hasieran formazioa egin da. ↪ Gutxienez ordezkari politikoaren %75ak parte hartu du.
1.2.5. Berdintasuneko formazioen aurreikuspena egin (udaletik egingo diren lanketa nagusien identifikazioa eta horietan genero ikuspegia txertatzeko formazioen aurreikuspena) eta jarraipenerako erregistroa sortu					Berdintasun teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Erregistroa egiteko tresna sortu da (Excel dokumentua). ↪ Plangintzaldi hasieran urte bakoitzean udaletik egingo diren lanketa nagusien (HAPOa berritu, plan sektorialak...) identifikazio lana egin da, eta horietan egongo diren berdintasuneko garapen beharrak jaso eta horiei erantzuteko formazioak berriaz eskaini zaizkio dagokion langile/politikariari. ↪ Erregistroa urtero bete da.
1.3. HELBURUA: Berdintasuna zeharlerrotasunez landu udaleko arlo guztietan						
Ekintzak:						
1.3.1. Zeharlerrotasunez lan egitera bidean, Berdintasun Zerbitzuak gainerako udal egiturekin izan beharreko harremana, elkarlana eta egitura definitu					Udal Gobernu Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Elkarlanerako helburuak, egiturak eta funtzioak definitu dira.
1.3.2. Proiektu/lanketa bat aukeratu eta horren garapenean genero ikuspegia txertatzeko berriazko lanketa egin (berdintasun teknikariak ere parte hartu)						<ul style="list-style-type: none"> ↪ Plangintzaldian, gutxienez, proiektu batean genero ikuspegia txertatzeko lanketa egin da zerbitzuen arteko elkarlanean.

1.3.3. Administrazio prozedura bat aukeratu (kontratazioa) eta horretan genero ikuspegia egoki txertatzeko prozesua martxan jarri				Berdintasun teknikaria eta idazkaria	<ul style="list-style-type: none"> - Prozedura aukeratu da. - Prozesua diseinatu da. - Esperimentatu da. - Baloratu da, ikasketak atera dira eta hobekuntzak adostu dira. - Prozesua berriro abiatu da.
1.3.4. GFA-ren "Generoa administrazio prozeduretan" programan parte hartzea baloratu				Landuko den prozeduraren arduraduna	<ul style="list-style-type: none"> - "Generoa administrazio prozeduretan" programan parte hartzeko proposamena aurkeztu da maila politikoan eta teknikoan eta erabaki bat hartu da.
1.4. HELBURUA: Udaletik berdintasunaren alde egiten den lana herrian ezagutzera eman					
Ekintzak:					
1.4.1. Esanguratsuak diren egunetan (Martxoaren 8a, Ekainaren 28a, Azaroaren 25a...) berdintasunaren aldeko aldarria egitea				Udal Gobernu	<ul style="list-style-type: none"> - Egun esanguratsuak aukeratu dira eta udalaren konpromiso politikoa adierazi da (askotariko moduak: adierazpen instituzionala, albistea...)
1.4.2. Udalak berdintasun gaietan garatzen dituen ekimenen berri eman				Berdintasun Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> - Udalaren komunikazio euskarrietan (sare sozial, webgune...) berdintasunarekin loturiko ekintza guztien berri eman da - Garatutako ekintza esanguratsuak zabaltzeko bitarteko komunikatiboak sortu dira (kartelak, eskuorriak...).
1.4.3. Udalak egiten dituen agerraldi publikoetan ordezkaritza parekidea bermatu				Udal Gobernu	<ul style="list-style-type: none"> - Udalak egiten dituen agerraldi publikoetan ordezkaritza parekidea izan da.
1.4.4. Herritarrei plangintzaldi erdiko balorazioaren berri eman				Udal Gobernu	<ul style="list-style-type: none"> - Zabalkundea egin da.
1.5. HELBURUA: Udal langileen arteko berdintasuna bermatu					
Ekintzak:					
1.5.1. Barne berdintasun diagnostikoa eta plana burutu				Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> - Diagnostikoa eta plana egin dira. - Inplementazioa abiatu da beharrezko berme eta baliabideekin.
1.5.2 Sexu- eta generoagatiko-jazarpenari aurre egiteko protokoloa egin				Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> - Protokoloa osatzeko prozesua burutu da. - Protokoloa martxan dago beharrezko berme eta baliabideekin.
1.5.3. Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren baldintzak berrikusi eta egokitu. Eta progresiboki eremu guztietako azpikontratututako langileekin berdina egin.				Udal Gobernu	<ul style="list-style-type: none"> - Aretxabaletako udalarekin batera lizitazioaren berrikuspina egin da. - Etxez-etxeko zerbitzuko langileekin lizitazio berria argitaratu aurretik balorazio bilera egin da eta lan baldintzak hobetzeko elementuak identifikatu dira. - Beste eremuetako langileen baldintzak hobetzen joateko bideak arakatzeko lehen urratsa eman da.

1.6. HELBURUA: Berdintasun politikak garatzeko lurralde eta erkidego mailako guneetan parte hartze aktiboa izan						
Ekintzak:						
1.6.1. Berdinbidean programan edo/eta Berdintasun Teknikarien Langunean parte hartu					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – GFAko Berdintasun Organoarekin harremanetan jarri eta Eskoriatzarako programa egokiena identifikatu da. – Eskoriatza aukeratutako programan parte hartzen ari da: urteko languneen %75ean parte hartu du/dute. – Programan abiatutako lanketak udalera ekartzen dira.
1.6.2. Aproposak izan daitezkeen beste sare, langune edo guneetan parte hartzeko aukera aztertu					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Bestelako sare, langune edo gune interesgarriak identifikatu dira. – Espazio horietan parte hartu edo ez erabaki da.

2. AHALDUNTZE FEMINISTA	URTEA				Arduraduna	Adierazleak
	2026	2027	2028	2029		
2.1. HELBURUA: Emakumeak* feminismora gerturatu						
Ekintzak:						
2.1.1. Egun esanguratsuen aitzakipean (Martxoak 8, ekainak 28, Azaroak 25, Maiatzak 17...) sortzen diren dinamikak ezagutu eta horietan lagundu/parte hartu.					Berdintasun Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> Orain arteko dinamika ezagutu da eta antolaketan parte hartu/lagundu da.
2.1.2. Inguruko Emakumeen Etxeekin harremana egin eta aliantza posibleentzako bideak aztertu					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> Harremana egin da eta aliantzarako bideak aztertu dira.
2.1.3. Eskoriatzako Jabetze Eskola sortu eta horren baitan, gutxienez, urtean ikastaro bat antolatu herriko emakumeen* interesei erantzunez. Progresiboki formazio eskaintza handitzen joan.					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> Jabetze Eskolaren markoa, oinarriak eta funtzionamendua jasotzen dituen dokumentua sortu eta onartu da. Gutxienez urtean ikastaro bat antolatu da. Urtez urte eskaintako ikastaro kopurua handitu da. Horren balorazioa eta hobetzekoak jaso dira.
2.1.4. Udaleko zerbitzu edo herriko eragile ezberdinekin harremanak eta elkarlana sortu emakume* gehiagorengana iristeko					Berdintasun Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> Udaleko zerbitzuei eta herriko eragileei dagokien informazioa helarazi zaie eta euren eragite eremuan zabaldu dute.
2.2. HELBURUA: Askotariko emakumeen* eta LGBTI+ kolektiboko kideen sareak sustatu eta elikatu						
Ekintzak:						
2.2.1. Berariazko talde elkarrizketak/entzuteak egin progresiboki emakume* migratuen, adinekoen, landa eremuko eta gazteen eta LGBTI+ kolektiboko en realitateak jasotzeko eta ahal dela horiek planaren garapenean kontuan hartu					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> Elkarrizketa/entzuteak egin dira eta errealitateak jaso dira. Planaren garapenean errealitate horiek kontuan hartu dira.
2.2.2. Inguruko herrietan LGBTI+ kolektiboarekin burutzen ari diren lanketak ezagutu eta Eskoriatzan zer urrats eman adostu					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> Azterketa egin da Urratsak adostu dira
2.2.3. Udalean dagoen informazioa aktiboki zabaldu emakume* eta emakume* taldeen arteko zubiak eraiki eta elkarlana elikatzeke					Berdintasun Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen* edo emakume* taldeen interesekoak izan daitezkeen ekimen eta lanketen berri eman elkarri eta elkarlana sustatu da.
2.2.4. Eskoriatzako askotariko emakumeak* elkar ezagutzeko eta saretzeko berariazko ekimenak antolatu, gutxienez urtean behin					Berdintasun Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> Urtero mota honetako ekimen bat antolatu da.

3. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA	URTEA				Arduraduna	Adierazleak
	2026	2027	2028	2029		
3.1. HELBURUA: Hezkuntza komunitate feminista bultzatzea						
Ekintzak:						
3.1.1. Hezkuntza komunitatetik bultzatzen diren ekimenetan ikuspegi feminista kontuan hartzen dela bermatzea					Hezkuntza teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> – Hezkuntza komunitatearen marko eta oinarrietan berariaz feminismoa aipatzen da. – Hezkuntza komunitatetik bideratzen diren lanketetan zeharlerrotasunez ikuspegi feministarekin lan egiten da.
3.1.2. Hezkuntza komunitatetik feminismoa lantzerako bideratutako berariazko lanketak egitea					Hezkuntza teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> – Feminismoa lantzerako bideratutako berariazko lanketa bat egin da plangintzaldian zehar.
3.1.3. Haurrengan eragiteko guraso eta gainerako herritarren erreferentzialtasuna lantzea. Horretarako, urtero udaletik herriko gurasoei bideratutako eskaintzaren baitan berariaz gurasotasun eta diskurtso feministak garatzeko eskaintza txertatu					Hezkuntza teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> – Urtero mota honetako ekimen bat eskaini da.
3.1.4. Udal eskumena diren zerbitzuetan ikuspegi feministarekin lan egiteko eta etengabeko garapena bermatzeko beharrak identifikatu eta horiei erantzuteko bideak adostu					Gazteria teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> – Udalekuetako begiraleentzat genero ikuspegia txertatzeko lanketa adostu da eta urtero eskaini da – Ludoteka eta gaztelekuko begiraleek genero ikuspegirekin lan egiteko dituzten garapen beharrak jaso dira eta horiei erantzuteko plangintza osatu da, horretarako bide egokiena aukeratu: formazioa, aholkularitza... – Plangintza horretan aurreikusitako ekintzen %75a garatu da
3.2. HELBURUA: Balio feministekin lerratutako kirol ereduak sustatu						
Ekintzak:						
3.2.1. Emakumeentzat* erosoak ez diren espazioetan ahalduzera bideratutako kirol eskaintza ez mistoa eskaini ikuspegi feminista batetik: kiroldegian (gimnasioan) eta espazio publikoan.					Kirol Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Kirol eskaintza ez mistoa eskaini da kiroldegian modu jarraian. – Espazio publikoan kirol eskaintza ez mistoa eskaintzeko herriko emakume* kirolariekin kirol proposena hautatu da eta eskaintza bideratu da.
3.2.2. Futbol sala partidak espazio seguru egin, bertan erreproduzitzen eta elikatzen den maskulinitate eredu hegemonikoan eskuhartuz. Horretarako, Kirol Elkartearekin bilera dinamika egonkor eta formala adostu eta giroan eragiteko ekintza plana irudikatu eta garatu: deialdietan berariazko oharrak, eserlekuetan eskuorriak, gertaeren					Kirol Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Kirol elkartearekin helburu hau lortzeko harremana eta funtzioak definitu dira. – Partidetako giroan eragiteko plangintza osatu da eta aurrera eraman da.

aurrean gaitzezpena... beste eremu batzuetatik (euskaratik) lanketak egitekotan, koordinatu eta eragiteko modurik egokiena adostu.						<ul style="list-style-type: none"> – Plangintzaren balorazioa eta egokitzapenak egin dira. – Egindako plangintzaren ekintzen %75a egin dira. – Behar izatekotan beste zerbitzuekin koordinazioa egin da.
3.2.3. Emakumeen martxa indartzeko berariazko laguntza eskaini					Kirol Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Emakumeen martxako antolatzaileekin urtero harremana egin da, garaiz. – Emakumeen martxa indartzeko udalak eduki ditzakeen baliabideak urtero eskaini zaizkie.
3.3. HELBURUA: Eskoriatzan kultur gintza feminista sustatu						
Ekintzak:						
3.3.1. Udaletik antolatzen diren ekimen esanguratsu batzuk aukeratu, horiek ikuspegi feminista eta interseksionaletik antolatzeko baliabideak eskuratu (gidak edo/eta bestelako materiala) eta berariazko lanketa egin					Kultura Zerbitzua eta Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Udaletik antolatzen den kultur eskaintzaren zerrenda egin da – Landuko diren ekimenen aukeraketa egin da. – Kontuan hartuko diren aldagaien identifikazioa egin da (eta horretarako beharrezko materialaren/giden azterketa). – Lanketa egin da.
3.3.2. Aurreko ekintzaren baitan egindako lanketatik abiatuta hobekuntza proposamenak eta, ahal dela, irizpideak adostu udaletik antolatuko diren kultur ekimenerako eta horien etengabeko jarraipenerako sistema irudikatu					Kultura Zerbitzua eta Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – 3.3.1 ekintzak aukeratutako ekimenen balorazioa egin da. – Hobekuntza proposamenen edo/eta irizpideen dokumentua sortu da. – Hurrengo urratsak adostu dira.
3.3.3. Udaletik egindako lanketa herri mugimenduko eragileekin progresiboki partekatze bideak bilatu					Kultura Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Ikasitakoa herri eragileekin nola landu irudikatu da.
3.3.4. Udaletik feminismoarekin lotura zuzena duen kultur ekimen bat (antzerkia, bakarrizketa, hitzaldia, erakusketa...) antolatu urtero					Kultura Zerbitzua eta Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Urtero ekintza bat antolatu da.
3.4. HELBURUA: Zaintza sistema justuago baterako bidea abiatu						
Ekintzak:						
3.4.2. Zaintza lanen garrantzia eta zaintza sistema justuago bat eraikitze behararen inguruko sentsibilizazio ekintzak antolatu bi urtean behin: hitzaldiak, tailerrak...					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Plangintzaldi bukaeran mota honetako bi ekintza burutu dira.
3.4.3. Herriko zainzaileen mapa osatu: zaintza lanak egoera ezberdinetan burutzen dituzten taldeak identifikatu eta horien egoera eta behar espezifikoak jasoaz.					Berdintasun teknikaria Gizarte langilea	<ul style="list-style-type: none"> – Mapa osatu da.

3.4.4. Zaintza modu sakon eta integralean landu duten herrietako esperientziak ezagutu					Berdintasun Zerbitzua Gizarte Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> - Bide ezberdinetatik interesekoak izan daitezkeen esperientziak identifikatu dira. - Esperientzia interesgarrien inguruko informazioa jaso da (jada sortuta dagoen materiala eskuratuta, eurekin zuzenean harremanetan jarrita edota espazio/ikastaroetan parte hartuz).
3.5. HELBURUA: Balio feministekin lerratutako maskulinitate ereduak sustatu						
Ekintzak:						
3.5.1. Maskulinitateen inguruko ekintza bat antolatu sentsibilizazioa lantzeko eta herrian, eta batez ere herriko gizonen artean, gaiarekiko dagoen inplikazioa jasotzeko					Berdintasun Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza antolatu da eta balorazioa egin da.
3.5.2. Aurreko ekintzak jaso duen erantzunaren arabera maskulinitateen lanketa jarraigo baterako ibilbidea irudikatu eta garatu, ekintza soltez edota lan zikloz osatua egon daitekeena					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> - 2027-2028 urteetarako ibilbidea irudikatu da. - %75a burutu da.

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	URTEA				Arduraduna	Adierazleak
	2026	2027	2028	2029		
4.1. HELBURUA: Indarkeria matxistaren prebentzioa						
Ekintzak:						
4.1.1. Indarkeria matxista egoerak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko dauden baliabideak ezagutzeko materiala sortu eta zabaldu					Berdintasun Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> - Eskuorria sortu da. - Eskuragarri jarri da espazio estrategikoetan (udala, liburutegia, kultur etxea, anbulategia...) eta online
4.1.2. Herriko tabernariekin eta eragileekin lanketa egin erasoan aurrean erantzuteko jarraibideak partekatzeak eta urtean behin trebakuntza eskaini					Berdintasun Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraibideak adostu dira. - Tabernari eta eragileekin partekatzeak bilera egin da. - Urtero trebakuntza eskaini da.
4.1.3. Jaietan indarkeriaren prebentziorako berariazko plangintza egin mugimendu feministarekin elkarlanean eta LGBTI+ kolektiboarekin (balego): protokoloaren lanketan sakondu, puntu morearen aukera baloratu, aurrez indarkeriaren prebentziorako materiala sortu eta banatu					Berdintasun Teknikaria Kultur Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> - Urtero berariazko plangintza egin da. - Urtero egindakoa baloratu eta hobetzekoak adostu dira.
4.1.4. Herriko gune eta bide ilunen identifikazioa egin modu kolektiboan (herriko askotariko emakumeekin) eta horiek argiztatzeko baliabideak bideratu epe ertainean					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarte, eragile eta askotariko emakumeekin harremana egin da - Identifikazioa modu kolektiboan egin da - Gune ilunak argiztatzeko proposamena bideratu da.

4.2. HELBURUA: Indarkeria matxista jasan duten emakumeei arreta integrala bermatzea						
Ekintzak:						
4.2.1. Indarkeria matxista jasan duten emakumeei arreta eskaintzen dieten udal langileei (gizarte langilea, udaltzainak...) berariazko formazioa eskaini					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Plangintzaldiko formazio aurreikuspenen berariazko formazio hau aurreikusi da dagokien langileentzat. Formazio plana bete da. – Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasunaren arteko koordinazio egitura definitu da. – Erakunde arteko koordinazio modua definitu da. – Urtean behin indarkeria matxista jasan duten emakumeei arreta integrala bermatzeko koordinazio egokia izan den baloratu da eta egokitzapenak egin dira, behar izatekotan.
4.2.2. Udal barnean eta bestelako erakundeekin (ertzaintza, osakidetza...) arreta egokia eta integrala bermatzeko beharrezko koordinazio bideak adostu					Berdintasun Zerbitzua Prebentzio Teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> – Jarraibideak adostu dira. – Jarraibideak aktibatu direnean horien balorazioa eta hobekuntza proposamenak egin dira. – Herrian edo herritarrengan inpaktua eragin duten eraso matxisten aurrean erreparaziorako ibilbideak adostu eta inplementatu dira: erasoak jasan du(t)en pertson(ar)ekin, komunitatearekin...
4.3. HELBURUA: Indarkeria matxistaren eraginez sortutako minaren erreparazioa bidelagundu eta bultzatu						
Ekintzak:						
4.3.1. Indarkeria matxista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionalerako jarraibideak adostu					Berdintasun Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> – Jarraibideak adostu dira. – Jarraibideak aktibatu direnean horien balorazioa eta hobekuntza proposamenak egin dira. – Herrian edo herritarrengan inpaktua eragin duten eraso matxisten aurrean erreparaziorako ibilbideak adostu eta inplementatu dira: erasoak jasan du(t)en pertson(ar)ekin, komunitatearekin...
4.3.2. Indarkeria matxistaren eraginez sortutako minaren erreparaziorako geruza ezberdinetako lanketak abiatu (dagokionean)					Berdintasun Zerbitzua Gizarte Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> – Jarraibideak adostu dira. – Jarraibideak aktibatu direnean horien balorazioa eta hobekuntza proposamenak egin dira. – Herrian edo herritarrengan inpaktua eragin duten eraso matxisten aurrean erreparaziorako ibilbideak adostu eta inplementatu dira: erasoak jasan du(t)en pertson(ar)ekin, komunitatearekin...

Bitartekoak eta baliabideak

Hauek dira helburu eta ekintza bakoitza inplementatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko Eskoriatzako Udalak izango dituen bitarteko eta baliabideak.

BITARTEKO MATERIALAK

Urtero erakundeko aurrekontuak zehaztearekin batera berdintasun planerako aurrekontua erabakiko da. Hau da 2026eko ekintzak aurrera eramateko aurreikusi den aurrekontua:

- 2026rako aurrekontua: 15.500 €

Kopuru hau udaleko aurrekontu orokorraren %0,23 da.

GIZA BALIABIDEAK

Giza baliabideak planaren inplementazioa aurrera eramateko beharrezkoak diren kideen inplikazioari eta dedikazioari deritzogu.

- **Berdintasun Zerbitzua:** arduradun teknikoaz (berdintasun teknikaria) eta arduradun politikoaz (berdintasuneko arduradun politikoa) osatutako zerbitzua da eta planaren inplementazioaren ardura nagusia edukiko duen egitura izango da. Planaren jarraipena egiteko eta zenbait ekintza aurrera eramateko beharrezko dedikazioa edukiko dute.
 - o Berdintasun teknikaria: koordinatzailearen funtzioa beteko du eta horrekin batera beherago azalduko diren eginkizun teknikoen ardura izango du.
 - o Berdintasuneko arduradun politikoa: etengabeko lankidetzat izango du berdintasun teknikariarekin eta udal gobernuaren etengabe informatua egoteko ardura izango du.
- **Gainerako udal zerbitzuetako teknikariak eta ordezkari politikoak:** Berdintasun planak udal jardura osoan eragitea du helburu, eta zentzu horretan, jasotzen dituen hainbat helburu eta ekintzatan gainerako udal teknikari eta ordezkari politikoen inplikazio zuzena eskatuko du.
- **Talde eragilea:** planaren etengabeko jarraipena egin eta ebaluatzeaz arduratuko da. Talde eragilearen bilerak egiteko Herritartasuneko Batzordeak baliatuko dira eta bertara gonbidatuko dira, normalean bilera horietan parte hartzen ez duten baina Talde Eragileko kide diren teknikari eta ordezkari politikoak. Beraz, ondorengoak izango da Talde eragilearen osaera: Berdintasuneko, gazteriako, kulturako, euskarako, kirolako, gizarte zerbitzuetako eta pertsonetako arduradun politiko eta teknikoak.

Jarraipena eta ebaluazioa

PLANAREN JARRAIPENERAKO EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA

Genero berdintasuna Udaleko jardunean eraginkortasunez txertatzeko ezinbestekoa da gaiari berriaz helduko dion egitura bat egotea, eta, halaber, Udalaren sail guztiek euren jardunean ere genero ikuspegia txertatzea. Alegia, lanketa espezifikoak eta zeharkako ikuspegia uztartzea. Horretarako, bi geruzako lan egitura artikulatuko da.

1. **Berdintasun Zerbitzua:** Planaren garapenaren ardura nagusia izango du, trakzio lana eginez. Lidergo partekatua bidez, udaleko langileen aurrean zein Eskoriatzako herritarrei begira gaiaren erreferentzialtasuna landuko du. Zeharkako ikuspegia ere izan beharko duen arren, zerbitzua lanketa espezifikoetan zentratuko da. Planaren inplementazioan sortzen diren lan guztien koordinazioaren eta eguneroko erabakiak hartzeko ardura edukiko duen egitura izango da. Berdintasun Zerbitzua berdintasun teknikariak eta berdintasuneko ordezkari politikoak osatuko dute. Udal egiturari, Gizarte Zerbitzuak eta Kirola Batzordearen baitan kokatuko da, eta barne antolaketan Herritartasuna taldean. Ondorengoan izango dira zerbitzuaren eginkizunak:
 - a. Prozesuaren ikuspegi osoa izatea.
 - b. Berdintasun Planeko ekintzak gauzatzen eta horien jarraipena (adostutako tresnen bidez) egiten aktiboki lan egin.
 - c. Gainerako udal zerbitzuekin elkarlanean jardun zerbitzu horien lan eremuko helburu eta ekintzak direnean garatu beharrekoak.
 - d. Talde eragilearen jarraipena eta dinamizazioa egitea.
 - e. Eskoriatzako Udaleko eta berdintasun planean esku har dezaketan bestelako administrazio edota herri eragileen arteko zubi izatea.
 - f. Urtean zehar sortu daitezkeen aldaketak, ekarpenak eta eguneraketak planean kontuan hartzeko ardura izango du.

Berdintasun Zerbitzuak, gutxienez, 11 bilera egingo ditu urtean.

2. **Talde eragilea:** Plana osatzeko prozesuaren baitan udalean ardura ezberdinak dituzten teknikariak eta politikariak parte hartu dute. Horren helburua zeharlerrotasunez lan egitea eta ahalik eta plan lurreratuena lortzea izan da, eta ondorioz, ekintzen ardurak ere modu horretan banatzea erabaki da. Hau da, gaian aditua denaren esku geratuko da ekintzaren ardura.

Planaren jarraipen osoa egiteko, ekintzak koordinatzeko, elkarrengandik ikasteko eta esperientziak partekatzeko talde eragilearen bilerak egingo dira, gutxienez urtean bi.

ADIERAZLEAK

Adierazleak egoera edo errealitate baten inguruko informazioa ematen duten neurgailuak dira. Egindako esku hartzearen betetze maila eta eraginkortasuna neurtzeko tresnak dira, eta, beraz, ezinbestekoak ebaluaziorako. Komenigarria da, halaber, horiek jasotzean, garapenaren berri emateko moduan jasotzea.

Planaren jarraipena adierazleekin egingo da. Komenigarria izango da adierazle horiek Eskoriatzako Udalaren ohiko kudeaketa moduetan txertatzea. Adierazle batzuek prozesuaren edo ekintzen betetzen mailaren inguruko informazioa emango digute eta beste batzuek ordea, egindako lanaren inpaktua adieraziko dute. Planeko ekintza guztiek adierazle bat edo batzuk dituzte aurreikusita, beraz, planaren garapenean adierazle taula bat osatu eta betetzea garrantzitsua izango da. Adierazleak besterik zehaztu ezean, betetze-maila bai/ez aldagaien bidez neurtuko dira.

Adierazleen jarraipen zehatza Berdintasun Zerbitzuak burutuko du eta horien betetze maila Talde Eragileak aztertu eta baloratuko du.

URTEZ URTEKO GESTIO PLANA

Planaren inplementazio egokirako urtero urteko gestio plana jasotzen duen dokumentua osatuko da. Bertan, gutxienez, urte horretarako aurrakusiak dauden ekintzak, horien arduradunak eta horien jarraipenerako adierazleak jasoko dira.

Dokumentu hori baliatuko du Berdintasun Zerbitzuak urteko jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

EBALUAZIOA

Talde eragileak planaren urte bakoitzeko eta planaren indarraldiaren bukaerako ebaluazioa egingo du eta hurrengo urterako helburu eta ekintzak proposatuko ditu.

Ebaluazioa egiteko gutxienez honako tresna hauek erabiliko dira:

- Urteko berdintasun plana. Helburu eta ekintza bakoitzaren adierazleak aztertuko dira eta ekintza horiekin lortutako inpaktua.

Helburu eta ekintzak proposatzeko dokumentuan urte horretarako aurreikusitako helburu eta ekintzak eta aurreko urtearen ebaluazioan identifikatutako ekintza zuzentzaile eta hobetzekoak hartuko dira kontutan.

Berrikuspena egiten den garaian baloratuko da planean esanguratsuak diren aldaketak egin behar diren. Berrikuste hori Talde eragileak egingo du.

Plangintzaldiaren amaieran, planaren ebaluazioa modu parte hartzailean egingo da. Hau da, planaren eragin eremuetako udal zerbitzu, eragile sozial eta norbanakoekin batera.